

II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

ZALDUONDOKO UDALA

Azterketa eskubideengatiko tasak arautzen dituen ordenantzaren behin betiko onarpena

Udalbatzak azterketa-eskubideengatiko tasak arautzen dituen hasierako ordenantza onartzeko 2022ko abenduaren 27ko bilkuran hartutako hasierako erabakia jendaurrean jartzeko epea igaro ondoren, iragarkia 2023ko urtarrilaren 4ko ALHAOn, 2. zenbakian, argitaratu zen, eta bertan ez zen erreklamaziorik aurkeztu ordenantzaren aurka. Hori dela eta, erabaki hori behin betiko bihurtu da, Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren testu bategina onartzen duen irailaren 29ko 1/2021 Foru Dekretu Arauemailearen 19.3 artikuluan eta Toki Araubidearen Oinarriak arautzen dituen apirilaren 2ko 7/1985 Legearen 49.c) artikuluan xedatutakoarekin bat etorritik.

Azterketa eskubideen tasak arautzen dituen ordenantza

I. OINARRIA ETA IZAERA

1. artikulua

Arabako Toki Ogasunak arautzen dituen Foru Arauaren Testu Bateginaren 18.etik 21.era bitarteko artikuluetan xedatutakoaren babesean, Zalduondoko Udalak "Azterketa Eskubideen Tasa" ezartzen du, zerga ordenantza honen arabera arautuko dena.

II. ZERGA EGITATEA

2. artikulua

Tasaren zerga egitatea Zalduondoko Udalak funtzionario eta/edo lan-kontratudun langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko egiten duen eskaera da, lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetara aurkezteko, irekiak edo mugatuak izan.

III. SUBJEKTU PASIBOA

3. artikulua

Honako hauek dira subjektu pasiboak, zergadunak: lehiaketa, oposizio eta oposizio-lehiaketetan (libre edo mugatuak) hautagai gisa parte hartzen duten pertsona fisikoak, Zalduondoko Udalak funtzionario eta/edo lan-kontratudun langileen plaza hutsak jabetzan betetzeko deituak.

IV. ZERGA KUOTA

4. artikulua

Hauek izango dira oposiziogile, lehiatzaile edo izangaiak ordaindu beharreko kuotak:

Enplegu publikoaren eskaintza: 15,00 euro.

Eskabidea aurkeztean egoera hauetakoren batean daudenek ez dute azterketa eskubideen tasa ordaindu behar:

a) Gizarte Segurantzako araubide batean ere alta emanda ez egotea, edo, hala badagokio, jarduneko lanbide mutualitate batean ere alta emanda ez egotea. Salbuespen hori aplikatzeko, subjektu pasiboak dagozkion egiaztagiria aurkeztu behar du.

b) Ehuneko 33ko minusbaliotasuna edo handiagoa onartuta duten pertsonak, baldin eta elbarritasun txandarako plazarik gordeta ez duten deialdietara aurkezten badira.

Salbuespen hori aplikatzeko, subjektu pasiboak desgaitasun maila egiaztatzen duen txartela aurkeztu beharko du, organo eskudunak emana.

Tasaren kuota ehuneko 50 murrizteko eskubidea izango dute eskabidea aurkeztean familia ugariako kide direla aitortuta dutenek.

Murrizketa hori aplikatzeko, subjektu pasiboak familia ugariaren titulua edo indarrean da goen familia ugariaren txartelaren fotokopia aurkeztu beharko du, organo eskudunak emana.

V. SORTZAPENA

5. artikulua

Eskabidea egiten den unean sortuko da tasa ordaintzeko beharra. Eskaera ez da ordainketa egin arte izapidetuko. Espedientea osatzen laguntzeko betebeharra ezartzen du, eta ez da bidezkoa izango eskubide horiek itzultzea, nahiz eta eskatzailea, edozein arrazoiengatik, lehiaketatik, oposiziotik edo oposizio-lehiaketatik kanpo utzi.

VI. LIKIDAZIOA ETA ORDAINKETA

6. artikulua

Lortu nahi den plaza bakoitzeko tasa nominala eta banakakoa Zalduondoko Udalak adierazten duen kontuan sartu beharko da. Sartu izanaren frogagiria hautaketa-prozesura aurkezteko eskabidearekin batera aurkeztu beharko da. Behin eskabideak aurkezteko epea amaituta, ez da onartuko tasa itzultzeko inongo eskabiderik.

XEDAPEN GEHIGARRIA

Zerga ordenantza honen arauak, arrazoi sistematikoak direla medio, indarrean dagoen legeriaren eta hori garatzeko beste arau batzuen alderdiak kopiatzen badituzte, automatikoki aldatuko edo ordeztuko dira eratorzen diren legezko arauen aldaketa kopiatzen denean.

AZKEN XEDAPENA

Zerga ordenantza hau behin betiko erabakia ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera egongo da indarrean eta haren indarraldiak aldatu edo berariaz indargabetu arte iraungo du.

Erabaki honen aurka administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan. Horretarako bi hilabete izango dira iragarki hau argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera, Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/1998 Legearen 46. artikuluekin bat etorriz.

Zalduondon, 2023ko otsailaren 27an

Alkatea

GUSTAVO FERNÁNDEZ VILLATE